

ERAIKUNTZAREN KOIUNTURA-INDIZEA (EKI), 2006KO 3. HIRUHILEKOA

Euskal AEko eraikuntzaren sektorea %5,5 hazi zen 2006ko hirugarren hiruhilekoan


Eraikuntza azpisektorea %5,2 hazi da, eta Obra zibila, aldiz, %6,1

EUSTATEk landutako datuen arabera, Euskal AEko eraikuntzako jarduerak %5,5eko hazkunde nominala izan zuen 2006ko hirugarren hiruhilekoan, lan-egutegiko baldintza homogeneousan, 2005eko hiruhileko beraren aldean. Urteko lehen hiru hiruhilekotan hazkunde metatua nominala izan da, %7,6koa hain zuzen ere.

Urtaroen eragina zuzendu eta gero, 2006ko hirugarren hiruhilekoan eraikuntzaren sektorea %1,5 hazi zen, urte bereko bigarren hiruhilekoaren aldean, eta azelerazio arina agertu zuen (%1,1) aurreko hiruhilekoaren hil arteko tasaren aldean.

Euskal Autonomia Erkidegoko Eraikuntzaren Koiunturari buruzko Indizearen urte arteko hazkunde zuzendua, hiruhilabeteka

% hazkundera



Iturria: Eustat

2006ko hirugarren hiruhilekoan eraikuntza-sektorearen bilakaera gehiago oinarritu zen obra zibila azpisektorean, eraikuntza azpisektorean baino. Izan ere, lehenak urte arteko %6,1eko igoera izan zuen, eta bigarrenak, berriz, %5,2koa.

Hiruhileko arteko terminoetan, 2006ko hirugarren hiruhilekoko sektorearen jardura urte horretako bigarren hiruhilekoan izandakoarekin alderatuta, eraikuntza azpisektoreak %0,6ko bilakaera positiboa izan zuen eta obra zibilak azpisektoreak %3,5eko hiruhileko arteko bilakaera. Beraz, azpisektore biek nahiko profil azeleratua erakutsi zuten, nahiz eta intentsitate ezberdinarekin.

2006ko hirugarren hiruhilekoan, eraikuntzaren sektoreko enplegua %1,6 gehitu zen, datu gordinetan, aurreko urteko aldi berdinen aldean, eta %0,5eko hiruhileko arteko hazkundera lortu zuen, 2006ko bigarren hiruhilekoaren aldean.

Taula: 2006ko 3. hiruhilekoa. Euskal Autonomia Erkidegoko Eraikuntzaren Koitunturari buruzko Indizearen aldakuntza-tasak (%)

Kontzeptua	Zuzendua		Desestazonalizatua	
	3.hir.06/2.hir.06	At/At-1 (1)	3.hir.06/2.hir.06	2.hir.06/1.hir.06
Produkzioaren indizea	5,5	7,6	1,5	1,1
Eraikuntza	5,2	8,7	0,6	1,5
Obra zibila	6,1	5,2	3,5	0,0
Landunen indizeak	-	-	0,5	0,8

(1) t urteko urtariletik azken hiruhilekora arte metatutako aldiaren urte arteko aldakuntza-tasa, t-1 urteko aldi beraren aldean.

Iturria: EUSTAT

Informazio gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel.: +34-945-01 75 06 Fax: +34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskaral/indice.asp